

## "HARRITUTA GAUDE, LAN BIKAINAK IKUSI BAITITUGU"



Asier Alonso [ Hirukide Eskolapioak | DBH ]

Asier Alonso, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako Departamentuak sustatutako Kosmodisea lehiaketako Ikono Planetan DBH kategorian lehen geratu den Tolosako Hirukide Eskolapioetako taldearen arduraduna da. Azaldu duenez, "Open Gela 1" taldeko ikasleek "oso gogotsu" baina "harrituta" ere hartu dute egin duten lanaren fruitua, lan bikainak ikusi baitituzte.

- Lana egiterakoan, zer iruditu zitzaizuen zailena?
- *Simulagailuaren dinamika ulertzea.*
- 2010-2011 Kosmodisea edizioan parte hartzen ari zareten aldetik, orain arte, zer iruditu zaizue interesgarriena?
- *Informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKTen) erabilera.*
- Eta zeintzuk dira jarduera honetan parte hartzerakoan izan dituzuen alde zail edo korapilatsuenak?
- *Parte hartzeko dinamika nolakoa zen ikustea. Berriak izanda, ez genekien lana nola egin.*
- Nola ekingo diozue Kosmodisea 2010-2011 edizioko azken etapari?
- *Gogo biziz.*